



Jarraipeneko saria: Auzitegi Gorenak arrazoia eman digu eta ez du “ia” ezertarako balio

Joan den Urriaren 15ean, Auzitegi Gorenak Jarraipeneko sariaren kalkuluari dagokionez (2008-2009 ikasturteko 3. inforria begiratu) arrazoia eman digu eta Kristau Eskolak eta AICEk jarritako demanda bertan behera uzten du. Horrela, jarraipeneko sariaren kobratzerako kalkulua egitean ordainketa bereziak hartu behar dira kontutan. Baina ez digu “ia” ezertarako balio. 2009ko maiatzaren 29an, *Kristau Eskolak*, *AICEk* eta *ELAk* 2008-2009ko lan hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen berri honetan, 73. artikuluan, jarraipeneko sariaren inguruan paragrafo berri bat azaltzen da eta hitzez-hitz horrela dio:

“Aruketa hau, eta kalkulu-modulua berariaz, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da, hitzarmen honen izenpetze- eta argitalpen-eguna edozein dela ere. Dena den, salbuespen gisa, hitzarmen honen aurre-akordioa izenpetutako data aurretik eskubidea izan, legeak agindutako moduan, garaiz eta baldintzak beteta dituztenek eskatutako jarraitutasun-sariak (2009ko maiatzaren 26a), auzitegi Gorenako Lan Arloko Sala egun izapidetzen ari den gatazka kolektiboaren prozedura behin betikoz ebatziko duen epaiak ezartzen duen kalkulu-moduluaren arabera ordainduko dira. Epaiaren helburua 2006-2007ko hitzarmenaren 68.bis) artikulua, aplikatu behar den kalkulu-moduluari dagokiona, interpretatzea da. Eskaria hitzarmen hau izenpetu aurretik egin dela ulertuko da langileak egindako eskariaren dataren edo lantokiaren hartu-agiriaren arabera hori horrela bada”

Hau da, maiatzaren 26a baino geroago saria eskatu duzuenok –epe barruan eta ezarritako prozedurari jarraiki– ez duzue aparteko lansarien prorratea kobratuko epaitegietan auzia irabazi dugun arren, Lan Hitzarmenaren sinatzaileek **horrela nahi izan dutelako**.

Zer balio dauka urteko 180 euroko dedikazio osagarria lortzeak, sari baten prorratea galtzen bada, hau da, 7 ordainsarirako eskubidea izanik, 3. 675 euro, hots, 20 urteko osagarria galtzen bada?

Triste da baina, berriz ere arrazoia dugu. Hemendik, ELAko pribatutako sektorea, lan hitzarmen berri bat sinatu baino lehen, sakonki aztertzea eta beste sindikatuak entzutera gonbidatu nahi dugu, beste sektoretan egin ohi duen bezala.